DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

BERDINTASUNAREN ALDEKO DONOSTIAKO EMAKUMEEN KONTSEILUA
CONSEJO DE LAS MUJERES DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN POR LA IGUALDAD

# Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektoriala – Consejo Sectorial para la Igualdad

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Eguna, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2017ko uztailaren 6a**/ 6 de julio de 2017<br>**Urgull Aretoa, Udaletxea** / Sala Urgull, Edificio Consistorial<br>**18:00** / A las 18:00 horas |
| **Amaiera-ordua**<br>Hora de finalización | **20:00 /** A las 20:00 horas |

## GAI-ZERRENDA:
## ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| **1. Aurreko aktaren onarpena** | 1. Aprobación del acta anterior |
| **2. Berdintasun ordenantza** | 2. Ordenanza de Igualdad |
| 3. **Alegazioak Plan Estrategikoari** | 3. Alegaciones al Plan Estratégico |
| 4. **Jaietako eraso matxisten aurkako kanpaina** | 4. Campaña contra las agresiones machistas en fiestas |
| 5. **Bestelakoak** | 5. Varios |

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
## HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | | |
|---|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARIA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE: Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria**<br>PSE-EE: concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad Cívica, Igualdad y Cooperación | |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | 1. **EH BILDU**<br>2. **IRABAZI - GANAR DONOSTIA**<br>3. **PSE-EE** | 1.<br>2.<br>3. |

| | |
|---|---|
| **HERRITARREN ELKARTEAK ETA, BERDINTASUN ARLOAN, GIZARTEAN GARRANTZI BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOAK**<br>ENTIDADES CIUDADANAS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL EN EL ÁMBITO DE LA IGUALDAD | **1.- ARRATS Elkartea / Asociación ARRATS**<br>**2.-ASADE Elkartea / Asociación ASADE**<br>**3.- ASADE Sindikatua / Sindicato ASADE**<br>**4.- ERNE**<br>**5.- ELKARTU (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazioa / Federación de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa)**<br>**6.- Haurralde Fundazioa**<br>**7.- GEHITU**<br>**8.- PLAZANDREOK** |
| **Norbanakoak**<br>Mujeres a titulo individual | |
| **EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE EDO EZ DIRA ETORRI**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA Y/O NO ASISTIERON | **1.- EMAKIN**<br>**2.-Plazandreok**<br>**3.- Dandai**<br>**4.-INTXAURRONDO BERRI**<br>**5.-Donostiako Berritzegunea**<br>**6.- EMAKUMEAK ETA HIRIA FOROA / FORO MUJERES Y CIUDAD**<br>**7.- LAB**<br>**8.- PP**<br>**9.-PSE – EE** |
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>CUERPO TÉCNICO MUNICIPAL | **Berdintasun Agentea / Agente de Igualdad**<br><br>**Atalaren burua / Jefa de Sección** |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektorialeko hamairu kide eta bi udal teknikari, idazkaritza tekniko lanetan.**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = **13**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **0**<br><br>13 personas integrantes del Consejo Sectorial para la Igualdad y 2 representantes del cuerpo técnico municipal como secretaría técnica |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO | **Berdintasun Bulegoa** - Negociado de Igualdad<br>Okendo 9 / 943 48 34 64 / berdintasuna@donostia.eus |

## SAIOAREN BILAKAERA:

## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

### 1. Aurreko Kontseiluaren akta onartzea

Hasi aurretik, Kontseiluko kide berri batek bere burua aurkeztu du. Banakako hiritar gisa dator, Podemosekoa dela adierazi badu ere.

1.- Aurreko akta onartzea:

Arratsen ordezkariak aurreko aktarekin izan den arazo bat azaldu du. Gizarte Ongizateko azken Kontseiluan, arlo horretako zinegotziak gizarte langileez gaizki hitz egin izana leporatu zion Arratsi, eta itxura batean ez da egia, eta *Berdintasunaren* aldeko *Kontseilua*ren azken bileraren aktaren zirriborroa erakutsi zuen.

Berdintasuneko teknikariak erantzun du azken Kontseiluan Arratsen ordezkaria kexatu zela elkarte horrek eskaintzen duen aholkularitza juridikoko zerbitzua ez zelako behar adina erabiltzen ari. Kexa hori zela eta, bilera bat egin zen Arratsen, berdintasun atalaren eta Gizarte Ongizatearen mende dagoen genero indarkeriaren biktimen arretarako udal bulegoko arduradunen artean. Bulego horretako teknikari batek Kontseiluaren akta eskatu zuen, eta Berdintasun Ataletik eman egin zitzaion, zirriborroa zela ohartaraziz. Eskura dugun hurrengo informazioa Gizarte Ongizateko Kontseiluan gertatutakoa da. Bestalde, aktan ez dago jasota kexarik horri dagokionez.

Erneren ordezkariak esan du aurreko Kontseiluan ez zela gizarte langileez gaizki hitz egin. Asade sindikatuaren ordezkariak gogorarazi du akta, zirriborroa den bitartean, ezin zaiola inori eman. Berdintasuneko zinegotziak berretsi du zirriborroak ez duela baliorik




### 1. Aprobación del acta del Consejo anterior

Antes de comenzar, se presenta una nueva integrante del Consejo, que acude como ciudadana individual, aunque manifiesta que forma parte de Podemos.

1.- Aprobación del acta anterior:

La representante de Arrats explica un problema que ha habido con el acta anterior. En el último Consejo de Bienestar Social, la concejala de dicha área reprochó a Arrats haber hablado mal de las trabajadoras sociales, cosa que al parecer no es cierta, y mostró que tenía el borrador del acta del último Consejo de Igualdad.

La técnica de igualdad responde que en el último Consejo la representante de Arrats se lamentó de que no se estaba haciendo uso suficiente del servicio de asesoría jurídica que dicha asociación ofrece. A raíz de dicha queja, se realizó una reunión entre Arrats, el departamento de igualdad, y las responsalbes de la oficina municipal de atención a víctimas de violencia de género, que depende de Bienestar Social. Una técnica de dicha oficina pidió el acta del Consejo, y desde Igualdad se le pasó, advirtiéndole de que era un borrador. La siguiente información de que se cuenta es lo sucedido en el Consejo de Bienestar Social. Por otra parte, en el acta no se refleja ninguna queja en ese sentido.

La representante de Erne dice que en el anterior Consejo no se habló mal de las trabajadoras sociales. La representante de sindicato Asade recuerda que el acta, mientras sea borrador, no se puede dar a nadie. La concejala de Igualdad corrobora que el borrador no tiene validez hasta que no se aprueba. Manifiesta estar también sorprendida, y lamenta lo ocurrido, ofreciéndose a transmitir a la concejala de Bienestar Social la queja, y pedirle que se disculpe o rectifique.

La representante de Erne cree conveniente

harik eta hura onartu arte. Adierazi du bera ere harrituta dagoela, gertatutakoa deitoratzen du, eta bere burua eskaini zuen kexa Gizarte Ongizateko zinegotziari jakinarazteko eta barkamena eskatu edo akatsa zuzendu dezala eskatzeko.

Erneren ordezkariaren iritziz, egokia litzateke kontseiluak grabatzea. Asade sindikatuaren ordezkariak esan du kontseiluetan edozein funtzionario kritikatzeko eskubidea dutela, eta ezin dela inolako zentsurarik onartu.

Berdintasuneko zinegotziak Kontseiluko EAJren ordezkariaren eskaera bat irakurri du, non eskatzen duen zuzendu daitezela gogorregiak iruditzen zaizkion zenbait adierazpen; izan ere, Udaltzaingoko arduradunari gezurra esatea egotzi zaio.

Plazandreok taldearen ordezkariak esan du Kontseilua ez dela txalo egiteko lekua, ezpada gaizki zer dagoen esatekoa, eta beti gogo onez hartzen dutela beste zinegotzien parte hartzea. Erneren ordezkariak berriro adierazi du Udaltzaingoa ez dagoela Berdintasun Planean sartuta, eta gogorarazi du aurten ez zaiola EHUren uda ikastaro batean parte hartzeko baimena eman.

Itxura batean oso ongi ulertu ez denez EAJko zinegotzia zehazki zertaz ari den, Berdintasuneko zinegotziak proposatu du akta bere horretan uztea, eta hurrengo Kontseiluan berriro azaldu dezala eskatzea.

Akta onartzeko orduan, EH Bilduren ordezkaria abstenitu egin da, ez baitzaio iruditzen akta behar bezala erabili denik, eta haren ustez erantzukizun politikoak daudelako.

## 2. Berdintasun ordenantza

*Berdintasunaren* aldeko *Kontseilua*n parte hartzen duten elkarteek bidali dituzten ekarpen guztiak dokumentu bakarrean jaso dira. Legeak partaidetza prozesu bat ezartzen du ordenantza bat lantzen den kasuetarako, baina asmoa lanean aurrera jarraitzea da, gero atzeratu ez dadin.
Irailetik aurrera, Berdintasuneko eta Idazkaritza Juridikoko atalek testua landuko dute, eta ekarpenak aztertuko

que se graben los Consejos. La representante de asociación Asade dice que en los consejos tienen derecho a criticar a cualquier funcionario o funcionaria, y que no se puede aceptar ningún tipo de censura.

La concejala de Igualdad lee una petición de la representante del PNV en el Consejo, en la que pide se rectifiquen afirmaciones que considera demasiado fuertes, ya que se acusa al concejal responsable de la Guardia Municipal de mentir.

La representante de Plazandreok dice que el Consejo no es para aplaudir, sino para decir qué está mal, y que están siempre abiertas a la participación de otros concejales. La representante de Erne se ratifica en que la Guardia Municipal no está incluida en el Plan de Igualdad, y recuerda que este año no se le ha dado permiso para participar en un curso de verano de la UPV.

Ya que no parece entenderse muy bien a qué se refiere exactamente la concejala del PNV, la concejala de Igualdad propone que se deje el acta tal cual, y que en el siguiente Consejo se le pida que lo vuelva a explicar.

A la hora de aprobar el acta, la representante de EH Bildu se abstiene, ya que no le parece que se haya hecho un buen uso del acta, y que hay responsabilidades políticas.

## 2. Ordenanza de Igualdad

Se han recogido todas las aportaciones que se han remitido desde las Asociaciones que participan en el Consejo de Igualdad en un único documento. La Ley marca un procedimiento partipativo para cuando se elabora una ordenanza, pero la idea es seguir avanzando con el trabajo, para que luego no se demore.




A

dira. Urtea amaitu baino lehen, gaiaz eztabaidatuko da Kontseiluarekin eta Udaleko beste departamentu batzuekin. Ordenantza 2018ko lehen seihilekoan onartuta egotea espero da, eta asko eskertzen da elkarteek egindako lana.

Arratsen ordezkaria kontseiluen parekidetasunaz eta haien osaeraren orekaz kezkatuta dago; salbuespena Berdintasun Kontseilua da, haren ustez aurrerantzean ere emakumeek bakarrik osatu beharko bailukete. EH Bilduren ordezkariak gogora ekarri du lehen Emakumeen Kontseilua zuela izena, baina PSOEk, PPk eta EAJk izena aldatu ziotela, eta gizonei ateak zabaldu zizkietela. Berak izena ostera aldatzea proposatu du.

## 3. Alegazioak Plan Estrategikoari

Berdintasuneko zinegotziak azaldu du Kontseiluak egindako alegazioak jaso zirela, eta Plan Estrategikoan sartu direla. Ziurtatu du, gainera, berdintasuna datorren 2020-2030eko Plan Estrategikoan jasota geratuko dela.

Arratsen ordezkariak adierazi du oraindik datu asko ez direla generoaren arabera bereizita jasotzen, eta beraz legea ez dela betetzen. Berdintasuneko teknikariak azaldu du bilera bat egin zutela Plan Estrategikoaren arduradunekin, eta haiek azaldu zietela datuak kanpoko iturrietatik lortzen zirela, baina aurrerantzean alderdi hori kontuan izango dutela, ahal den neurrian. EH Bilduko zinegotziak gogorarazi du Plan Estrategikorako batzordean Berdintasuneko teknikari batek parte hartzea proposatu zela, eta hiriaren diagnostikoaren datuak eguneratu behar direla.

partir de septiembre, Igualdad y Secretaría Jurídica trabajarán el texto, y se valorarán las aportaciones. Antes de final de año se volverá a contrastar con el Consejo y otros departamentos del Ayuntamiento. Se espera tener la ordenanza aprobada dentro del primer semestre de 2018, y se agradece mucho a las asociaciones el trabajo realizado.

La representante de Arrats está preocupada por la paridad y composición equilibrada en los Consejos, salvo el de Igualdad, que cree tiene que seguir estando compuesto exclusivamente por mujeres. La representante de EH Bildu recuerda que era el Consejo de las mujeres, pero que el PSOE, PP y PNV enmendaron el nombre, y abrieron las puertas a la entrada de hombres. Por su parte, propone volver a cambiarlo.

## 3. Alegaciones al Plan Estrategico

La concejala de Igualdad explica que se incluyeron las alegaciones realizadas por el Consejo, y que han quedado incluidas en el Plan Estratégico. Asegura, además, que la igualdad quedará reflejada en el siguiente Plan Estratégico 2020-2030.

La representante de Arrats afirma que aún muchos datos no se recogen desagregados por género, no cumpliéndose así la Ley. La técnica de igualdad explica que se hizo una reunión de igualdad con el Plan Estratégico y que desde dicho departamento se les explicó que los datos se obtenían de fuentes externas, pero que lo tendrán en cuenta en adelante en la medida de lo posible. La concejala de EH Bildu recuerda que se proponía la participación de una técnica de igualdad en la comisión para el Plan Estratégico y que hay que actualizar los datos del diagnóstico de la ciudad.

## 4. Jaietako eraso matxisten aurkako kanpaina

Berdintasuneko teknikariak azaldu du kanpaina Aste Nagusian hasten dela eta San Sebastian egunera arte egongo dela indarrean, tartean dauden jaiak barnean hartuz (Euskal jaiak, estropadak, San Tomas eta abar). Lehen 2 egunez jartzen zen informazio gunea Aste Nagusi osoan zehar egongo da orain Bulebarrean. Bestalde, neskentzako 15.000 kit eta mutilentzako 5.000 banatuko dira, iaz baino gehiago. Gainera, erasoen aurkako protokoloa etxe guztietara banatuko da buzoi bidez, tabernetan txapak emango zaizkie zerbitzariei, eta ohiko prestakuntza egingo da taberna eta txosnekin. Era berean, udan gaia lantzen ari da taxilariekin, Mugikortasun Departamentuarekin eta udaltzainekin. Horrez gain, jaietan erantzunkidetasunaren aldeko eskumuturrekoak eta imanak banatuko dira eta iragarkiak jarriko dira hedabide ugaritan, banderatxoak faroletan eta pankartak udaletxean, autobus geltokian eta abar. Autodefentsa feministako ikastaroak ere, onarpen handia dutenak, antolatuko dira Emakumeen Etxean. Kanpaina dagoeneko hainbat urtez egin denez, gero eta presenteago dago hirian, eta ekintza asko automatikoki gehitzen dira.

Plazandreoken ordezkariak iradoki du mugimendu feministaren laguntza eska litekeela etxera itzultzeko elkarretaratzeak egiteko, autodefentsa taldeetako neskak inplikatuz, eta Kursaalen puntu lila jar litekeela. Erneren ordezkariak autobideen sarreran panel argidunak jartzea proposatu du.

EH Bilduren ordezkariaren iritziz, kanpaina urte osora zabaldu beharko litzateke, eta lehenago martxan jarri, eta galdetu, bestalde, zergatik ez zegoen udalaren ordezkaririk San Bartolomeko puntu kritikoaren esku-hartzean. Berdintasuneko zinegotziak adierazi du agenda arazo batengatik ezin izan zirela joan. Asade sindikatuaren ordezkariak deitoratu du Udal Gobernua ekintza horietara joan ez izana, haren ustez lehentasunezkoak izan beharko bailukete. Elkarturen

## 4. Campaña contra las agresiones machistas en fiestas

La técnica de igualdad explica que en Semana Grande arranca la campaña, que seguirá en vigor hasta el día de San SEbastián, a lo largo de las diferentes fiestas que hay (Euskal jaiak, regatas, Santo Tomás, etc.) El punto de información que antes se ponía durante 2 días, ahora estará toda la Semana Grande en el boulevard. Se repartirán 15.000 kits para chicas y 5.000 para chicos, más que el año anterior. Así mismo, se buzoneará el protoclo contra las agresiones a todas las casas, se repartirán en los bares chapas para las camareras y camareros, y se hará con bares y txoznas la formación habitual. También se está trabajando con taxistas, el departamento de movilidad y municipales de verano. Se repartirán también pulseras e imanes por la corresponsabilidad en fiestas, y se pondrán anuncios en muchos medios de comunicación, así como banderolas en las farolas, pancartas en el Ayuntamiento, estación de autobús, etc. Se organizarán cursos de autodefensa feminista en la Casa de las Mujeres, que tienen una gran aceptación. Al ser una campaña que se desarrolla desde hace años, está cada vez más presente en la ciudad, y ya se incorporan muchas acciones de forma automática.

La representante de Plazandreok sugiere pedir colaboración del movimiento feminista para hacer quedadas para volver a casa, implicando a las chicas de los grupos de autodefensa, así como poner el punto lila en el Kursaal. La representante de Erne propone poner paneles luminosos en la entrada de las autopistas.

La representante de EH Bildu considera que habría que ampliar la campaña a todo el año, poniéndola en marcha más pronto, y pregunta también por qué no había ninguna representante municipal cuando en la intervención del punto critico de San Bartolomé. La concejala de igualdad explica que no se pudo ir por un problema de agenda. La representante de sindicato Asade lamenta que el Gobierno Municipal no acudiese a esos actos, que considera deberían ser prioritarios. La representante de Elkartu afirma que el año anterior pidió carteles para poner en euskal jaiak

ordezkariak esan du iaz kartelak eskatu zituela Euskal Jaietan jartzeko, eta ez zizkiotela eman. Indarkeriaren aurkako borroka jai guztietan, edozein direla ere, txertatuta egon dadila eskatu du.

y no se los facilitaron. Pide que esté integrada la lucha contra la violencia en todas las fiestas, sean cuales sean.

Asaderen ordezkariak hitza hartu du gogorarazteko Udalak oraindik ez duela iazko diru-laguntzen bigarren ordainketa igorri.

La representante de Asade interviene para recordar que el Ayuntamiento aún no ha librado el segundo pago de las subvenciones del año anterior.

EH Bilduren ordezkariak adierazi du Alkatetzak zeharkakotasuna bultzatu behar duela berdintasunari dagokionez, eta galdetu du noizko egongo den prest genero indarkeriaren biktimen arreta jasoko duen protokoloa, eta ea gaia Kontseiluan eztabaidatuko den. Departamentuak azaldu du normalizazio arloak dokumentuaren lanketa amaitzen duenean, hura elkarteei aurkeztuko zaiela.

La representante de EH Bildu afirma que tiene que ser desde Alcaldía desde donde se transversalice la igualdad, y pregunta para cuándo estará listo el Protocolo que recoje la atención a víctimas de violencia de género, y si se va a contrastar con el Consejo. Por parte del Departamento se explica que cuando normalización termine de preparar el documento se expondrá el documento ante las Asociaciones.

## 5. Bestelakoak

## 5. Varios

Plazandreoken ordezkariak Irma Arnaiz Beasaingo Berdintasun arloko zinegotzi ohiaren kasua ekarri du hizpidera. Plazandreok haren aldeko sinadurak biltzen ari da, uste baitu lan ona egiten ari zela, baina haren talde politikoak (EAJ) kargua utz dezala eskatu diolako. Berdintasuneko zinegotziak Plazandreoki eskatu dio agiria bidal dezala, nahi duenak sina dezan. Asade elkartearen ordezkariak uste du alderdiei eskatu behar zaiela politikoki zuzena dena benetako ekintzatan gauzatu dadila. Plazandreoken ordezkariak posta bidez bozkatzea proposatu du. Agiria hurrengo egunean bidaltzea adostu da.

La representante de Plazandreok trae el caso de Irma Arnaiz, ex concejala de igualdad en Beasain. Plazandreok está recogiendo firmas en su apoyo, ya que consideran que estaba realizando un buen trabajo, pero su grupo político (PNV) le ha pedido que deje el cargo. La concejala de igualdad pide a Plazandreok que envíe el manifiesto, y que firme quien quiera. La representante de asociación Asade cree que hay que exigir a los partidos que lo políticamente correcto se refleje en actos reales. La representante de Plazandreok propone que se vote por corre-e. Se acuerda enviarlo al día siguiente.

Amaitzeko, Arratsen ordezkariak bere burua eskaini du akta zaharrak aztertu eta zehazteko legealdia hasi zenetik oraindik zer zeregin dauden egiteko.

Para finalizar, la representante de Arrats se ofrece a revisar actas antiguas, y extraer tareas pendientes desde que empezó la legislatura.

Aztergai gehiago ez dagoenez, 20:00etan bilera amaitu da.

No habiendo más temas que tratar, finaliza la reunión a las 20:00.